

BAOn 2021-04-20 argitaratuta

BERMEOKO UDALA

2019ko urtarrilaren 30eko eta 2020ko urtarrilaren 31ko Osoko Bilkuretan, 2019 eta 2020. urterako Araudi Planean onartutako Bermeoko udalerriko jabari publikoa okupatzeari buruzko Ordenantzaren behin-betiko onespena

BERMEOKO UDALERRIKO JABARI PUBLIKOA OKUPATZEARI BURUZKO ORDENANTZA.

ZIOEN AZALPENA

Ordenantza honen helburua, Bermeoko udalerriko jabari publikoaren erabilera berezia arautzea da, indarrean dagoen legediak ezartzen dituen mugen eta garapen ahalmenekin bat, erabilera bereziak, babestu beharreko erabilera orokorrarekin bateragarri egiteko.

Ez dira hemen arautuko, Bermeoko Udalak onartuta dauzkan Ordenantza berezietan araututako jabari publikoaren okupazio edo erabilerak eta, Ordenantza ezberdinen artean kontraesanik balego, Ordenantza bereziena nagusituko da.

Hemen araututakoa aplikagarria izango da ere erabilera publikodun gune pribatuetan eta, Bermeoko Udalaren ondasun pribatuetan, beti ere zabalik badaude eta ondasunaren ezaugarriekin bateragarria bada.

Erabilera publikoko gune pribatuek arazo asko sortu ditu, gune horien mantenua nori dagokion ordaintzea zehazterakoan.

Bermeoko gune asko, duten helburuagatik, interes publikoaren zerbitzuan daude, titularitate pribatuak izan arren, adibidez guztion atsedenerako guneak, espazio irekiak edo bi eremu berezien arteko pasabide direnak.

Baina gune horien mantentzeko eta jendearen erabilerak bertan eragindako kalteak ordaintzeko ardurak zehazterakoan arazoak sortzen dira, eta ohikoa izaten da toki administrazioak eta auzokoen elkarteak bat ez etortzea horren inguruan.

Izan ere, ondasun pribatu baten gainean erabilera publikorako zortasun bat eratzen denean, ez dago behar bezain zehazturik zein betebeharrak dituen udalak, ezta nola ulertu behar diren egonaldi eta bide-zorra arautzen duten klausulak, eta hortxe datza, hain zuzen, desadostasunaren jatorria.

2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 199. artikuluan dioenez, lursail, etxe, eraikin eta instalazioen jabeek nahitaez dute ondasun horiek segurtasun, osasun, begirune eta apaintasun publikoko egoera onean mantentzeko eginbeharra. Horretarako, behar diren



kontserbatze eta birgaitze-lanak egingo dituzte, bertako bizigaitasuna eta benetako erabilera bermatzeko.

Udalari dagokionez, berea da beti zerbitzu publikoak (segurtasuna, argiteria, garbiketa edo bideetako zoladura) mantentzeko ardura, baina bakarrik publikoak diren bide eta guneeetan, eta hala zehazten du Toki Araubideari buruzko 7/1985 Oinarri Legeak 25. eta 26. artikuluetan.

Beraz, finka partikularrek beharrezkoak zaizkien baliabideak eskuratu behar dituzte, jabetzak dakartzkien betekizunei aurre egiteko. Jabeen elkarleen kasuan, Jabetza Horizontalari buruzko 49/1960 Legearen testu bateratuak honela dio 10. artikuluan: "elkarteak eraikina eta bertako zerbitzuak egoki mantentzeko eta kontserbatzeko obrak burutu beharko ditu, eraikinaren egitura, iragazgaitasuna, bizigarritasuna eta segurtasuna bermatze aldera".

Hala ere, batzuetan finka pribatuak erabilera publikoaren gainzama eramaten du, eta horrek nolabaiteko ordaina ekarri behar du, behintzat erabileraren erabiliaz ondasunean izan daitezkeen kalteengatik. Hori da aipatzen dena Arartekoak egindako hainbat gomendioetan eta Auzitegi Nagusiaren 2001eko maiatzaren 21eko sententzian (RJ 2001/3792).

Konpentsazio horrek oinarria du zuzenbidearen printzipio orokorretan. Horietako bat on ustearen printzipioa da, Kode Zibilaren 7.1 eta 1.285. artikuluetan jasoa eta era guztietako kontratuak baldintzatu behar dituen; horren arabera, bai Administrazioa eta bai administratuak behartuta daude zuzen, leial, zintzo eta zentzuz jokatzeko. Ekitatea ere printzipio horietako bat da, eta jasota dago Kode Zibilaren 3.2 artikuluan.

Aipatutako zuzenbidearen printzipio orokorretatik ondorioztatzen da udalerriak behar bezalako konpentsazioa eskaini behar duela jabego pribatu batean egiten den erabilera publikoagatik. Eta hori arautzea ere bada Ordenantza honen helburua.

Aipamen eta araubide berezia dauka, Ordenantza honen barruan, Gaztelugatxeko eremuak, babestutako biotopoa eta erakargarritasun turistiko handia daukan gunea izanda, erabilera berezia, erabilera orokorra eta eremua babesteko betebeharrak uztartzeko ahalagin eta xedapen bereiztuak eskatzen dituelako.

Ordenantzaren beharrezan, erabilera ezberdinen arteko bateragarritasuna bermatzeko beharrean oinarritzen da, erabilerak uztartzeko eraginkortasuna lortzeko tresna egokia delako.

Ordenantzan xedatutakoak, ase nahi diren beharrezan bermatzeko gutxienekoak dira, eta proportzionaltasunez arautzen dira, erabilera orokorraren babesean beti, baina bateragarriak izan daitezkeen erabilera bereziak ahalbidetzeko moduko xedapenak jasota.

Araubide honen bidez, gainera, interesdunen eta erabilera publikoko ondasun pribatuen jabeen segurtasun juridikoa bermatu nahi da, bai interesdunek erabilera orokorra egin nahi badute, eta baita ere erabilera berezi bat egin nahi badute, bai erabilera orokorra babesteko neurriak ezartzen direlako, bai erabilera berezia egiteko eskariak, ezaugarriak eta betekizunak arautzen direlako, baita ere ondasun publikoetan egiten den erabilera publikoagatik udalak emango duen konpentsazioa arautzen delako.



Eta hori guztia araututa edukitzeak, gardentasunaren argipean aritzea indartzen duen moduan, era arautuan eta normalizatuan jarduteak, administrazioaren funtzionamenduan efizientzia handitzea ekarriko du ezinbestean.

LEHENENGO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua: Objektua

Ordenantza honen bidez Bermeoko udalerriko jabari publikoaren erabilera bereziak eta erabilera horiek egiteko lortu behar diren baimenak eskuratzeko prozedura arautu nahi dira, herritarrek egin dezaketen jabari publikoaren erabilera orokorra ezereztu ez dadin eta baimengarriak diren bestelako erabilerekiko bateragarritasuna ahalbidetzeko.

2. artikulua: Aplikazio-eremua

Ordenantza hau, beste Ordenantza berezietan arautzen ez diren Bermeoko udalerriko jabari publikoan eta erabilera publikoko ondasun pribatueta egin nahi diren ekintza, instalazio eta aprobetxamenduei aplikatuko zaie, beste administrazioei dagokien eskumen eta atribuzioen kalterik gabe, eta bestelako baimenak eskuratu behar izanaren kalterik gabe.

3. artikulua: Esklusioak

1. Ordenantza honen aplikaziotik kanpo geratzen dira:

- a) Kalez kaleko salmenta.
- b) Hileta edo omenaldi zibilak.
- c) Herriko jaietan edo beste ospakizunetan jartzen diren txosnak.
- d) Obrei lotutako aldamu, hesi, grua, kontenedore bidez egindako, edo beste edonolako okupazio edo erabilerak.
- e) Ibilgailuak garajeetara sartzeko espaloiak gordetzea.
- f) Ostalaritzako terrazak eta mahaiak instalatzea.
- g) Udal jabetzako edo ardularitzaapeko bideen aprobetxamendua.
- h) Telekomunikazio, argindar, gas, ur eta bestelako horniduren okupazioa.
- i) Taxi eta garraio geltokiak.
- j) Zanga, areka eta kalikatak.
- k) Hauteskundeetako propaganda eta kanpainak.
- l) Udalaren edo mendeko erakundeen jabetzako kiosko, kantina, taberna edo antzekoak.
- m) Emakida bidez esleitu beharreko okupazioak.
- n) Udalak edo bere mendeko erakundeek egindako okupazio edo erabilera bereziak.
- ñ) Lankidetzak hitzarmen baten babespean Administrazio publikoek egindako okupazio edo erabilera bereziak.
- o) Bermeoko Udalerrian egonda ere, beste Administrazio publiko baten eskumenekoa den gunearen okupazio edo erabilera.
- p) Udaletik kanpoko beste agintari batzuen baimena behar dutenak, hala nola, manifestazioak eta konzentrazioak.

2. Aurreko atalean aipatutakoak berain Ordenantza espezifiko edo legedi bereziaren bidez arautuko dira.



4. artikulua: Definizioak

Ordenantza honen eraginetarako definizioak:

1. Jabari publikoa: Erabilera publikora bideratutako edo zerbitzu publiko bati lotutako Bermeoko Udalaren edo bere mendeko erakundeen titularitateko ondasun eta eskubideak, eta baita ere legeren batek jabari publikoko izaera ematen dieten ondasun eta eskubideak.
2. Ondare-izaerako ondasunak: Bermeoko Udalaren edo mendeko erakundeen titularitatekoak izanda ere, erabilera publikora edo zerbitzu publiko bateri lotutakoak ez diren ondasunak, eta udalarentzat edo bere mendeko erakundeentzat sarrera edo aprobetxamenduak sortarazteko gaitasuna dutenak.
3. Erabilera publikoko gune pribatuak: nahiz eta jabetza pribatua mantendu, hirigintza planeamenduaren arabera horrela izendatuta egon, eta herritarren erabilera publikora bideratuta daudenak.
4. Baimena: eskatutako erabilera egiteko ahalmentzen duen erabaki edo akordio idatzia.
5. Antolatzailea: burutu nahi dan ekimen edo okupazioaren sustatze, antolaketa eta garapenaren ardura daukan pertsona fisiko, juridikoa, edo bestelako entitatea.

5. artikulua: udal jabari publikoaren erabilera motak:

Ondare legediaren arabera, udal jabari publikoaren erabilera mota hauek bereiztu behar dira:

1. Erabilera arrunt orokorra: pertsona guztiei berdin eta bereizi gabe dagokiena eta besteen erabilera oztopatu gabe egiten dena da.
2. Erabilera arrunt berezia: erabilera arrunta oztopatu gabe, baldintza bereziak biltzen dituen erabilera da, bai erabileraren intentsitateagatik, bai bere arriskugarritasunagatik, erabilera orokorraren gainetik egin edo erabilera orokorra urritzea suposatzen duena.
3. Erabilera pribatiboa: beste pertsonen erabilera oztopatu edo mugatzen duen jabari publikoko zati baten okupazioa da.
4. Erabilera ezohikoa: eragindako jabari publikoaren erabilera nagusiarekin bat ez datorrena da.

6. artikulua: Baimenak

1. Baimena beharko dute jabari publikoaren erabilera edo aprobetxamendu berezia suposatzen duten okupazioak. Baimena beharko dute ere instalazio desmuntagarrien edo ondasun higigarrien bidez egiten diren okupazioak, iraupenak ez badu 4 urteko epea gainditzen.
2. Izaera finko edo behin betikodun obra edo instalazio bidez egindako erabilera pribatiboei eta erabilera ezohikoei administrazio emakida beharko dute. Emakida beharko dute ere instalazio desmuntagarrien edo ondasun higigarrien bidez egiten diren okupazioak, iraupenak 4 urteko epea gainditzen badu.



3. Emakida behar duten okupazio edo erabilerak Ordenantza honetatik kanpo geratzen dira, 3.1.m) artikuluan jasotzen den moduan.

7. artikulua: Ondare-izaerako udal ondasunak

Ordenantza honetan xedatutakoak ondare-izaerako udal ondasunak erabiltzeko Bermeoko Udalak eman ditzakeen baimenei era osagarrian aplikatuko zaie Ordenantzaren bertan jasotako ekintzak burutzeko badira eta ondare-izaerarekin bateraezina ez den bitartean.

8. artikulua: Erabilera publikoko gune pribatuak

Ordenantza honetan xedatutakoak aplikagarriak izango dira ere erabilera publikoko gune pribatuetan, izaera pribatuarekin bateraezina ez den bitartean.

9. artikulua: Jabari publikoa erabiltzeko irizpideak

1. Jabari publikoaren okupaziorako baimenak ematea udalaren aukerazko egintzak dira. Baimenek, ahalmena ematen die baimendutako pertsona edo entitateei, eskatutako ekintza egin, jabaria okupatu eta zehaztutako instalazioak jartzeko, Udalak ezarritako baldintza zehatzak beteta, eta baldintza horiek betetzen diren bitartean.

2. Jabari publikoa okupatu edo erabiltzeko baimenak ematerakoan, interes publiko eta pribatuak uztartzeko, erabilera arrunt orokorra eta eskatutako erabilera berezi edo pribatiboen bateragarritasun irizpideak kontutan edukiko dira eta, gatazkarik egon ezker, erabilera arrunt orokorrak edukiko du lehentasuna interes orokorragatik.

3. Irisgarritasun legedia ere kontutan edukiko da, udal jabari publikoa oztoporik eduki ez dezan ahalbidetzeko.

4. Animaliak erabiltzea guztiz debekatuta dago, tradiziozko jai edo ekimenetako animalien parte hartzea salbu, hala nola, Olentzero eta Errege kabalgatak, etab.

10. artikulua: Izapidetza bateratua

Jabaria okupatzeko eskarian ekintza ezberdinak jasoko balira, edota udalaren baliabideak uzteko eskaria ere egingo balitz, baimendu beharreko guztiaren izapidetza bakarra egingo da eta erabaki bakarrean jasoko da, horretarako beharrezkoak diren txostenak eskatuta dagozkien sail guztiei.

11. artikulua: Pareko irizpideen aplikazioa

Ordenantza honetan espresuki jasotzen ez diren okupazio edo erabilera berezien bestelako kasuak ere baimena eskuratu beharko dute eta, baimenak, berdintasun printzipioarekin bat eta pareko irizpideak aplikatuta emango dira, jarduera edo okupazioaren berezitasunak, lekua, jabariaren erabilera arrunt orokorrarekiko bateragarritasuna, ingurumen eta ingurunearekiko eragina kontutan edukita, baina udalak daukan diskrezionaltasun tartearen barruan.

12. artikulua: Ikuskatze eta kontrola



1. Bermeoko Udalak ahalmena dauka jabari publikoan edo erabilera publikoko gune pribatuan ordenantza honen arabera egiten diren okupazio, instalazio eta ekintzak ikuskatu eta kontrolatzeko, baimenean zehaztutako baldintza eta eskakizunak betetzen direla bermatzeko. Eta baimena ez daukaten erabilera eta aprobetxamendu guztiak debekatuko ditu.

2. Ikuskapena egiten duen funtzionarioak jabariaren erabilera desegokia egiten ari dela egiaztatuko balu, horretarako baimenik ez dagoelako edo baimenaren baldintzak betetzen ez direlako, dagokion salaketa edo ikuskapen akta egingo du, eta okupazioa edo erabilera desegokia egiten ari den pertsonari, borondatez, okupazio edo erabilerarekin amaitzeko eta, egongo balira, elementu eta instalazioak kentzeko eskatuko dio, eta ohartaraziko dio horrela egingo ez balu, ofizioz egingo dela momentu horretan bertan.

3. Udaltzaingoak, aipatutako tramiteak eginda, ipinitako elementu eta instalazioak kenduko ditu, eta produktu eta tresneria konfiskatuko du, posible balitz. Jardun guzti hauen gastuak erabilera desegokia egin duenaren kontura izango dira, eta horrela jasoko da egindako akta edo salaketan. Eta hori guztia, egokia dan zigor espedientearen zabaltearen kalterik gabe, non hartutako neurriak mantentzen diren edo ez erabakiko den, eta egokia den tributu egokitzapena egitearen kalterik gabe.

BIGARREN TITULUA. BETEKIZUNAK, BALDINTZAK ETA PROZEDURA

13. artikulua: Baimenaren eskaria eta onuradunak

1. Jabari publikoa okupatzeko eskaria edozein pertsona edo entitatek egin dezake, normalizatutako eskabide-orrria erabilita, beharrezko agiri guztiekin lagunduta joango dena. Eskaria lege onartutako edozein bide erabilita aurkeztu ahal izango da.

2. Bermeoko Udalaren baimena eskuratzear gain, eskumendun izan daitezkeen bestelako Administrazioen baimenak lortu beharko dira Bermeoko Udalaren baimenak balioa izateko.

14. artikulua: Tasak

1. Ordenantza honetan araututako erabilera bereziei, Bermeoko Udalak onartuta dauzkan ordenantza fiskaletan jasotako tasak aplikatuko zaizkie.

2. Baimenak konkurrentzia bidez ematen diren kasurako, ordenantza fiskaletan jasotako tasak lizitazio tipo moduan hartu ahal izango dira.

15. artikulua: Jabari publikoaren kontserbazioa, kalteak eta bermeak

1. Baimenen titularrek jabaria egoki kontserbatzeko eta osasun eta higiene baldintzetan mantentzeko betebeharra izango dute, eta baita ere okupazio edo erabileraren ondorioz sortutako kalteak konpondu edo ordaintzekoa ere.

Baimendutako okupatze edo erabilera epea amaituta, jabari publikotik instalazio, elementu eta tresnak kendu beharko dituzte.



2. Baimendutako erabileraren izaerak horrela eskatzen duenean, erabileraren epea amaitu ondoren instalazioak eta tresnak kentzeko edota sortutako kalteak estaltzeko nahikoa den bermea jartzeko exijitu ahalko du Bermeoko Udalak.

Bermearen zenbatekoa, kasuan kasu baloratuko da, horretarako egingo den txosten teknikoaren bidez. Txosten horretan, eskatutako okupazio edo erabileraren ezaugarri bereziak edukiko dira kontutan.

3. Ez da bermerik eskatuko antolatzailea Bermeoko Udala edo bere mendeko erakundeetarikoa bat denean.

4. Erabilera bereziagatik jabari publikoa kaltetu edo suntsituko balitz, erabilera egin duenak kaltetutako ondasunak bere horretara itzultzeko betebeharra edukiko du. Hori guztia, dagokion tasa eta ezarri daitezkeen zigorren kalterik gabe.

Ondasunak bere horretara itzultzeko proposamen idatzia aurkeztu beharko du Bermeoko Udaleko Erregistro orokorrean eta, exekutatu aurretik, Bermeoko Udalaren onespenean idatzia jaso beharko du.

Horrela egingo ez balu, Bermeoko Udalak exekutatu beharrezko erreparatze edo berregitea, eta jarritako bermearen kontura egingo du.

Bermea kostu osoa estaltzeko nahikoa ez balitz, diferentzia ordaindu beharko du. Eta kalteak konponezinak balira, kaltetutako ondasunen balioaren pareko kalte-ordaina ordaindu beharko du.

16. artikulua: Erabilera publikoa duten gunen pribatuen mantenua

1. Erabilera publikoa duten gunen pribatuen mantenu lanak Udalari eta jabe elkartearen artean bananduko dira. Udalak bere gain hartu behar ditu zenbait betekizun, finkari ezarritako erabilera publikoak sorraraziak.

2. Udalak bere gain hartuko ditu lan hauek:

- Zoladuraren eta hiri altzarien garbiketa lanak, fatxadak, paramentuak eta sabaia izan ezik.
- Pasabide diren gunetan ikuspen egokia ziurtatzeko egiten diren argiteriaren hornitze eta mantentze gastuak (farolak eta ataripeko sabaiko argi-puntuak)
- Hiri-altzariak birjartzea (bankuak, paperontziak...).
- Lorategiak egonez gero, behar bezala mantendu beharko dira, udalerriko gainontzeko lekuetan egiten den modu berean.
- Pasabide-guneko zoladuran, oinezkoen ibilera eragozten edo zailtzen duten elementu hondatuak konpontzea. Hala nola, bizitza baliagarriaren amaieran edo erabilera publikoak eragindako narriaduragatik, baldosa, lauza edo akaberako azken pieza ordezkatzeko (erabilera publikoari egotz dakiokkeen higadura jasaten duena); ez, ordea, isolamenduarekin, iragazgaiztearekin edo horri eusteko ekintzarekin zerikusia duten elementuak birjartzea edo konpontzea. Hau da, azken kapa ordezkatzearen kostua, beti ere ordezkatzeko beharrian hori erabilera publikoaren ondorioz egin behar bada. Eta kasu honetan Udalak bere gain hartuko



duena, ordezkaturako den materialaren kostua izango da. Konponketa lanen esleipena Jabe Elkartearen kontura eta ardurapean egingo da.

3. Jabeen elkarteek, kasu guztietan, bere gain hartuko dute lan hauek:

- Eraikineko egiturazko elementuak kontserbatzea eta horretarako beharrezko inbertsioak egitea.
- Saneamendurako sarea eta euri zein hondakin uretarako isurbideak sare orokorrarekiko lotuneraino mantentzea, eta hondatutako elementuak (kutxetak eta hustubideak) aldatzea.
- Hormetako pintadak, graffitiak eta bestelakoak desagerraraztea.
- Isolamenduarekin, iragazgaiztearekin edo hura sostengatzen duen ekintzarekin zerikusia duten elementuen birjartzea edo konpontzea.
- Aurrekoak egin ahal izateko beharrezko kontratazioak egin eta ordaintzea.
- Obrak egin aurretik, beharrezkoa den obra lizentzia eskuratzea.

4. Bermeoko Udalak bere ardurapekoa den betebeharren ordainketa gauzatzeko aurrekonturik ez balu, hurrengo urteko aurrekontuetan txertatu beharko du, eta Jabe elkarteak ordura arte itxaron beharko du kobrantza burutzeko.

Aurreko paragrafoa ez da aplikagarria izango arriskuagatik edo jabeen derrigorrezko betebeharrengatik exekutatu beharreko interbentzioen kasuan. Salbuespen moduan, horrelako obraren baten lizentzia emango balitz, Udalak urte horretan ordaindu beharko du berari dagokion zatia.

17. artikulua: Erantzukizun zibileko aseguruia

Erabilera berezia egiten duenak bere erabileraren ondorioz pertsona eta ondasunetan sortutako kalteetaz erantzungo du zuzenean, eta baita ere instalazio eta tresnak gaizki kentzeaz, erabilitako eremua zikin uzteaz. Kalte hauen estaldura bermatzeko indarrean dagoen erantzukizun zibileko polizia aurkeztu beharko du erabilera egin aurretik, polizaren kopia aurkezteko baimenean jarritako azken eguna gaingitu gabe.

Horrela egingo ez balu, baimena indar gabe geratuko litzateke.

18. artikulua: Udalarekin egunean egotearen betebeharra

Eskaitzaileak Udalarekin egunean egon beharko dira ordainketetan, kontzeptua edozein dela ere, eta ezingo dute derrigorrezko diru-bilketan zorrik eduki.

Egoera hau baimenak irauten duen bitartean mantendu beharko da eta, beteko ez balitz, baimena bertan behera geratuko litzateke.

19. artikulua: Autobabes Plana eta Larrialdiei Aurre egiteko Plana

Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren legediak horrela eskatzen duenean Autobabes Plana edo Larrialdiei Aurre egiteko Plana aurkeztu beharko dute eskatzaileek eta, hauek aurkeztu gabe ezingo dute baimenik eskuratu.



20. artikulua: Baimenak.

1. Ordenantza honetan araututako baimenak prekarioan ematen dira eta edozein momentutan, interes orokorreko arrazoiengatik, ukatu, aldatu, eten edo baliagabetu ahal izango dira.
2. Baldintzak zuzenean emango zaizkie baldintzak betetzen dituztenei, baina baldintzak betetzeak ez du suposatuko inolako eskubiderik eskatzaileentzat, Udalak baimenak onartu eta ukatzeko askatasuna edukiko duelako, bereziki interes orokorra kontutan edukita, interes partikularren gainetik.
3. Baina arrazoia edozein dela ere, udalak baimen kopurua mugatuko balu, baimenen ematea lizitazio bidez egingo da.
4. Baimen eskariak horretarako onartutako ereduak erabilia eta Ordenantza honetan xedatutakoarekin bat egin beharko dira.

21. artikulua: Baimenen iraupena

Baimenen iraupena ebazpenean espresuki jasotakoa izango da, eta ezingo da luzatu.

22. artikulua: Prozedura orokorra

Baimenen izapidetza Ordenantza honetan jasotakoaren arabera egingo da. Ordenantzan jasotzen ez den guztirako, Prozedura Administrazio Orokorreko legedian jasotakoa aplikatuko da, beharrezkoak liratekeen bestelako baimenei aplikagarria zaien legedia aplikatzearen kalterik gabe.

23. artikulua: Eskabidearen gutxieneko edukia eta aurkezteko gutxieneko epea

1. Baimen eskariak hauek jasoko ditu gutxienez:

- Eskatzailearen datuak eta, beharrezkoa denean, ordezkariaren datuak.
- Jakinarazpenetarako helbidea.
- Okupatu edo erabili nahi den gunearen kokapen zehatza, okupatu nahi den azalera zehaztuta.
- Data edota epea.
- Hasiera eta amaiera data eta ordua.
- Garatu nahi den jardueraren deskribapena.
- Ipini nahi diren instalazio edota tresnen deskribapena eta neurriak, eta kokapen planoak, osagarriak diren elementu eta instalazioak barne.
- Aurreikusitako ikusle edo erabiltzaileen kopurua.
- Arduradunaren datuak: izen-abizenak, helbidea, helbide elektronikoa eta telefono zenbakia.
- Egoera berezietan edota ekintzaren berezitasunagatik aurkeztu beharreko bestelako dokumentazio espezifikoak, hala nola Kontingetzia Planak, Segurtasun Planak, etab.
- Ekintzaren berezitasunagatik, ezinbestekotzat ematen diren bestelako agiriak.

Eskabideak gutxieneko datuak edo dokumentuak edukiko ez balitu, akatsak zuzentzeko 10 laneguneko epea emango zaio eskatzaileari. Akatsak zuzentzeko errekerimenduan ohartaraziko



da, emandako epean akatsak zuzenduko ez balira, eskariari uko egiten zaiola ulertuko dela eta artxibatu egingo dela, hori adierazten duen ebazpen bidez.

2. Eskariak egutegiko 21 eguneko aurrerapenarekin aurkeztu beharko dira gutxienez, ez bada lizitazio bidez baimentzekoak direla. Azken kasu honetan, lizitazio iragarkian adierazitako epearen barruan aurkeztu beharko dira.

Eskariak aipatutako epeen barruan ez aurkeztea, eskaria ez onartu eta artxibatzeke zio izango da. Salbuespenez, ekintzak interes orokorra badauka eta eskaitzaileek ezin izan badute eskaria epez aurkeztu euri egotzi ezin zaizkien arrazoiengatik, posible izango da baimena izapidetzea. Kasu horretan, espedientean dagozkion txosten guztiak egon beharko dira.

24. artikulua: Txostenak eskatzea

1. Eskaria izapidetzeko ardura daukan sailak eskaria ebazteko beharrezkoak irizten dituen txostenak eskatuko ditu erabaki proposamena egin baino lehenago.

2. Ahal dela, txosten guztiak batera eskatuko dira, izapidetza atzeratu ez dadin. Arau orokor moduan, txostenak 10 laneguneko epean eman beharko dira.

25. artikulua: Motibatzea eta jakinarazpena

Baimena onartu edo ezeztatzen duen ebazpena motibatua izango da eta eskaitzaileak eskatutako bidea erabilita jakinaraziko da, ez bada elektronikoki notifikatzeko derrigortasuna daukatela. Kasu honetan elektronikoa ez dan beste biderik ez da erabiliko, interesdunak kontrakoa eskatu arren.

Ebazpena jakinaraztea lortuko ez balitz, Prozedura Administratibo Orokorreko legediak aurreikusitako bideak erabiliko dira jakinarazitzat emateko.

26. artikulua: Isiltasun administratiboaren erregimena

Eskaria aurkeztu eta egutegiko 21 eguneko epea igarota edota eskarian zehaztutako eguna helduta baimenaren ebazpen espresurik ez balego, eskaria isiltasun administratiboaz ezeztatuta geratu dela ulertuko da.

Horrek ez du esan nahi, egutegiko 21 eguneko epea igarota, eskarian zehaztutako eguna heldu baino lehenago, baieztatu baimen espresua jasoko ez denik, ezta Bermeoko Udalak daukan erantzuteko beharra malgutzen denik. Baina jasoko ez balitz, ezeztatutzat hartuko da.

27. artikulua: Ekimen edo okupazioen berezitasunengatik baimenak ukatzea

1. Udalak baimen eskari bat ukatu ahal izango du aurreikusitako pertsonen kopurua, jabariaren ezaugarriak edo antzekoak kontutan edukita, segurtasuna arriskuan jarri leikela, irisgarritasuna larriki oztopatu leikela edota inguruko zerbitzu publikoak oztopatu leikezala antzemango balitz.



Horren kalterik gabe, segurtasuna, irisgarritasuna eta zerbitzu publikoen babesa bermatzeko, ukatzen den ekimena edo okupazioa garatzeko beste aukerak proposatu ahal izango dizkio interesdunari.

2. Baimen eskaria ukatu ahal izango da, eskatutako ekimen edo okupazioa data eta leku berean antolatutako edo baimendutako ekimenekin bateragarri ezinak direnean. Bereziki, Bermeoko Udalak antolatu edo lagundutako ekimenekin talka egiten badute.

28. artikulua: Baimenen iraungitzea

Ordenantza honekin araututako baimenak kasu hauetan iraungiko dira:

- a) Eskatzailearen heriotza edo ezgaitasun eratorria gertatuko balitz, pertsona fisikoa izanez gero, edota pertsona juridikoa desagertuko balitz.
- b) Udalak espresuki onartu gabeko baimendunaren aldaketa, eskualdaketa edo lagapena egongo balitz.
- c) Epea igarotzea.
- d) Baimena baliogabetzea.
- e) Alde bien adostasuna.
- f) Tasa, kanon edo bestelako udal eskubideak ez ordaintzea, edo udalak horrela aitortutako betebeharren ez betetze larria egotea.
- g) Derrigorrezko diru-bilketan Udalarekiko edonolako zorrak edukitzea.
- h) Ondasunaren desagertze edo desafektatzea, edo aprobetxamenduaren agortzea.
- i) Zaraten eta Dardaren aurkako babeserako udal Ordenantzan xedatutakoa ez betetzea eta ordenantza horretan zehaztutako baldintzak eta mugak ez errespetatzea.
- j) Baimenak emateko lizitazio oinarrietan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzea.

29. artikulua: Baimenak besterentzeko mugak

Onartutako baimenak ezingo dira eskualdatu udalak ez badu eskualdaketa espresuki onartzen. Eta hau betetzea baimena iraungitzeko zio izango da.

30. artikulua: Instalazioak kendu eta okupatutako guneak garbitzea

Antolatzailea izango da, ekimena amaituta, honetaz arduratuko dena: okupatutako jabari publikoa eta ingurukoa instalazio, elementu eta sortutako zaborretatik libre, eta erabilera arruntari berriro ekin ahal izateko egoera egokian uztea.

31. artikulua: Hiri-altzarien birjartzea



Baimendutako ekimenen ondorioz hiri-altzarietan eraginik balego, aurreko egoeran birjarri beharko dira, berdin behin-behingoak kendu badira edo kaltetu egin badira.

Kasua edozein dela ere birjartzea egiteko proposamena aurkeztuko da udalean eta udalak ezarritako baldintzen arabera egin beharko da.

Horrela egingo ez balitz, udalak egingo du birjartze hori antolatzailearen kontura. Ahal dela jarritako bermearen kontura egingo da eta, gastu guztiak estaltzeko nahikoa ez balitz, estali gabeko zatia ordaindu beharko du baimenduak.

Sortutako kalteen ondorioz aurreko egoera birjarri ezingo balitz, kaltetutako ondasunen balioaren besteko kalte-ordaina eskuratuko du Udalak baimenduarengatik.

Eta hori guztia, egokia izan daitekeen zigor espedientea izapidetzearen kalterik gabe.

32. artikulua: Trafikoan eraginak

Baimendutako ekimen edo okupazioak trafikoan eragingo balu, baimenaren ebazpenean jasotako trafiko eta erabilera baldintzak bete beharko dira zorrotz.

Baldintzak beteko ez balira edo arrisku egoera sortzen dela ikusiko balitz, beharrezko neurriak ezarri edo agindu ahal izango dira, baita ekimenaren edo okupazioaren etena ere.

33. artikulua: Instalazioen baldintzak

Ekimena edo okupazioa garatzeko instalazioak erabiliko balira, pertsona eta ondasunen segurtasuna bermatzeko modukoak izango dira eta legediak bereziki arautzen duena bete beharko dute.

Kasu hauetan, eskabidearekin eskumendun tekniko batek izenpetutako instalatze proiektua aurkeztu beharko da, ez bada instalazioen konplexutasun baxua dela eta ez dela beharrezkoa irizten. Azken kasu hauetan, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da proiektuaren ordeztu:

a) Eskumendun tekniko batek izenpetutako zinpeko aitortpena. Zinpeko aitortpen horretan erantzukizunez adieraziko du instalazioak konplexutasun urrikoak direla eta ez dutela instalatze proiektuaren beharrik.

b) Erabiliko diren elementu eta instalazio guztien deskribapen zehatza eta espezifikazio teknikoak jasotzen dituen Memoria, planoekin lagunduta, segurtasun, sendotasun, erresistentzia, egonkortasun eta bestelako beharrezko baldintzak betetzen dituztela bermatzen.

Instalazio edo elementuen ezaugarriak kontutan edukita, sortu daitezkeen kalteak estaltzeko adinako bermea jartzearen beharra, eta beste agiri batzuk aurkeztu edota beste baldintza batzuk betetzearen beharra kasuan kasu aztertuko da.

34. artikulua: Zarata eta dardarak



Antolatzaileak Zaraten eta Dardaren aurkako babeserako udal Ordenantzan araututako bete beharko du zehatz, eta ordenantza horretan xedatutako baldintzak eta mugak errespetatu beharko ditu uneoro.

Baldintza hau ez betetzea baimena iraungitzeko zioa izango da.

35. artikulua: Muntaiaren azken ziurtagiria

33. artikuluan aipatutako instalazioak ipintzen diren kasuan, instalazioa egin ondoren, eskumendun teknikoak sinatutako muntaiaren azken ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Ziurtagiri horretan egindako instalazioa aurretik aurkeztutako proiektu edo memoriarekin bat datorrela egiaztatu beharko da, eta segurtasun, sendotasun, erresistentzia, egonkortasun eta bestelako beharrezko baldintzak betetzen dituela bermatzen dela.

Muntaiaren azken ziurtagiria edota kasuan kasu eskatutako dokumentazioa aurkeztuko ez balitz, baimena iraungi egingo litzateke eta instalazioa jartzea debekatuta geratuko da. Berdin gertatuko da kasuan kasu eskatutako baldintzak beteko ez balira.

36. artikulua: Asistentzia medikua

Legediak horrela eskatzen duenean, ekimenaren arduradunak, beharrezko diren anbulantzia eta medikuen presentzia bermatu beharko du. Baldintza hau ez betetzea ekimena automatikoki bertan behera geratzeko zio izango da.

37. Zuzkidura higienikoak

1. Burutu nahi den ekimen edo okupazioaren ustezko parte hartzaileen ondorioz, gunearen higiena bermatzeko zuzkidura higienikoen beharra dagoela iritziko balitz, gutxienezko zuzkidura higienikoen beharra modu honetan kalkulatu da, erabilitako azaleraren arabera:

-600 m²ra arte: 2 komun eta konketa bat.

-601 eta 2.000 m²ra arte: 4 komun eta 2 konketa.

-2.001 eta 5.000 m²ra arte: 6 komun eta 3 konketa.

-5.000 m²tik gora, 2 komun eta konketa 1 gehiago jarri beharko dira 2.500 m² edo frakzio bakoitzeko.

2. Zuzkidura higienikoak homologatuak izan beharko dira eta euren legedi espezifikoak bete beharko dute, eta udalak zehaztutako kokalekuan ipini beharko dira.

3. Inguruan dauden zuzkidura higieniko publikoak nahikoak direla iritziko balitz, espero diran parte hartzaileen beharrei aurre egiteko, ez da zuzkidura gehigarriak ipintzeko betebeharririk jasoko baimenaren ebazpenean.

38. artikulua: Salmenta ekimenetan

Baimendutako ekimenetan edonolako salmenta egingo balitz, Kalek kaleko salmenta arautzen duen Ordenantzan jasotakoa eta mota horretako salmentari aplikagarria zaion legediak



xedatutakoa bete beharko da. Arreta berezia bete beharko da kontsumitzaileen babeserako legediak dioena salmenta mota hauen inguruan

39. artikulua: Jatekoen eta alkohol-dun edarien salmenta ekimenetan

1. Baimendutako ekimenetan jatekoen salmenta egingo balitz, jakien salmentaren edota prestaketaren inguruan Kalez kaleko salmenta arautzen duen Ordenantzan jasotakoa bete beharko da, Osasun arloko legedia betetzeaz gain.

Eskabidearekin batera, salduko diren produktuen deskribapena, jatorriaren egiaztagiriak, eta legediak ezarritako betebeharrak higieniko-sanitarioak betetzen direla aitortzen duen zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dira.

2. Alkohol-dun edariak salduko balira, drogomendekotasun legediak arautzen duena bete beharko da.

3. Antolatzailearen ardura izango da jakiak kontsumitzeko moduan egotea, eta legedi espezifikoak xedatzen duena betetzen dela bermatzea, batez ere, kontsumitzaileen babeserako legedia eta jakien betebeharrak higieniko-sanitarioen legediari dagokionean.

40. artikulua: Baimenik gabeko edo baimeneko baldintzak betetzen ez dituzten ekimenak

Udaltzainek edo ikuskapena egiten dituzten funtzionarioek jabariaren erabilera desegokia egiten ari dela egiaztatuko balu, baimenik ez dagoelako edo baimenaren baldintzak betetzen ez direlako, ekimena bertan behera geratuko da une horretan bertan, 12. artikuluan xedatutakoak egitearen kalterik gabe.

HIRUGARRENA TITULUA: MUGATUTAKO ERABILEREN BAIMENAK EMATEKO BEREZITASUNAK.

41. artikulua: Mugatutako erabiliren onarpen eta iragarpena

Bermeoko Udalak, urte bakoitzeko lehenen hilabeteetan, urte horretan mugatutako diren erabilpen berezien zerrenda orokorra argitaratuko du, horrelako erabilpena egiteko interesa eduki dezaketen interesdunen informaziorako.

Aipatutako erabileren artean egon daitezke, adibidez, zirkua jartzea, food truck ekitaldiak egitea, gaztaina salmentarako postuak, liburu azokak, azoka solidarioak, tradiziozko egunetako azokak, etab.

Mugatutako erabilpenen zerrenda Bermeoko Udaren web guneko albisteen atalean iragarriko da.

Muga honetatik kanpo geratuko dira, ekonomia berpiztu, solidaritatea bultzatu edo bestelako antzeko interes orokorrekin lotuta, eta udalaren helburuak lortzeko, herriko elkarteek egin ditzaketen horrelako erabilpen eskariak, nahiz eta mugatutako erabilpenen zerrendan jasota egon. Eta hori, udalaren interesak edota betebeharrak ordezkatzeko ekimenak izanda, udal beraren jabaria erabiltzea beharrezkoa bada.



42. artikulua: Mugatutako erabilpenerako eskaria egitea

Mugatutako erabilpenen bat egiteko interesa dutenek, beraien interesa agertzen duen eskaria aurkeztu beharko dute urte horretako otsailaren 28a baino lehen.

43. artikulua: Mugatutako erabilpenak baimentzeko prozedura berezia

1. Mugatutako erabilpen bakoitzerako eskari bakarra aurkeztuko balitz, urte horretan, eskaria egin duen interesdun horren baimen eskaria izapidetuko da zuzenean, interesdunari egoera horren berri eman, eta Ordenantza honetan xedatutako baldintzak betetzen dituen eskari zehatza aurkeztu eta gero.

2. Mugatutako erabilpenetarako eskari bat baino gehiago aurkeztuko balitz, Bermeoko Udalak egokia den lizitazioa bideratuko du, horretarako oinarriak onartu eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia iragarrita.

3. Otsailaren 28an pasata aurkeztutako eskarien kontuan, eskaria egin duen lehenengoari baimentzeko aukera egongo da, udalak egokia dela iritziko balu, eta besteak ez dira kontuan izango.

Kontutan hartzen ez diren eskari hauen kasuan, eskatzaileei honen guztiaren berri emango zaie idatziz, hurrengoko urteetarako jakitun egon daitezen.

LAUGARRENA TITULUA: AURRE KOMUNIKAZIOA BEHAR DUTEN EKIMENAK.

44. artikulua: Aurre komunikazio bidezko ekimenen deskribapena

1. Aurre komunikazio bidez baimenduta geratuko dira ere, tradiziozko egunetan eskolek antolatutako kalejirak, konpartsak eta antzekoak, urte horretako aseguru polizaren aurkeztuta.

Tradiziozko egun moduan ulertzen dira Agate Deuna eguna, Aratuste eguna, ikasturte amaierako eguna, eskoletako egunak eta parekoak.

2. Aurre komunikazio bidez baimenduko dira instalazio edo elementu finkoak jarri gabe irabazi asmorik gabeko elkarteek egiten dituzten diru-bilketak.

3. Aurre komunikazioa aurkeztu beharko da ikasketa artistikoen barruan kalean egiten diren jarduerak baimena izateko, hala nola, kalean margotu, argazkigintza, musika instrumentuak praktikatu, etab.

4. Aurre komunikazioa aurkeztu beharko da, une jakin batean, dendetako salgaiak kalera ateratzeko, edo establezimenduetako kanpoaldean gabonetako sasoian, dekorazio elementuak jartzeko, oinezkoei 1,5 metroko pasagunea uzten zaiela bermatzen bada.

BOSGARREN TITULUA: GAZTELUGATXEKO BIOTOPO BABESTUARI BURUZKO BEREZITASUNAK.



45. artikulua: Gaztelugatxe Uhartearen eta sarbidearen erabilera bereziak edo okupazioak egitea

Gaztelugatxe Uhartearen eta bere sarbidea lurreko itsas-lehorreko jabari publikoa denez, bertan ezingo da inolako erabilera berezi edo okupaziorik egin Estatuko Administrazioak egokia den baimena eman gabe. Baimen hori eskuratzeko, Bermeoko Udalaren aldez aurreko txostena egon beharko da derrigor.

46. artikulua: Gaztelugatxerako sarbidera doan errepidearen erabilera

1. Gaztelugatxerako sarbidera doan errepidea Bermeoko Udaren jabari publikoa denez, bisitarien afluentzia kontrolatu edota mugatzeko beharrezko neurriak hartzeaz gain, Bermeoko Udalaren baimena beharko da, ezinbestean, eremu horretan bestelako erabilera berezia edo okupazioa egiteko.

2. Biotopo babestuan kokatzen den eremua izanda, bisitarien afluentzia kontrolatu edota mugatzean datzan aparteko erabilera berezi edo okupazioak salbuespena izango dira, eta erabilera edo okupazio horien interes orokor eta berezia behar bezala justifikatuta egongo da.

3. Interes orokor eta berezi hori, biotopoarenganako eraginarekin alderatuko da, eta biotopoa kalte edo eragin desagokirik sortzeko arriskua ikusiko balitz, baimen eskaria ukatu egin beharko da besterik gabe.

4. Baimen berezi hauen eskaria, beste edozein baimenentzat Ordenantza honetan xedatutako agiri eta baldintzen arabera egingo da, baina ebazpena eman aurretik, biotopoaren organo kudeatzaileari txostena eskatu beharko zaio.

5. Inolaz ere ezingo dira baimendu Gaztelugatxe Biotopo babestua izendatzen zuen 229/1998 Dekretuak debekatzen dituen erabilera edo okupazioak.

6. Atal honetan eta hurrengo artikuluan jasotako salbuespenak aparte, ezingo dira baimendu irabaz asmoko ekimenak garatzeko erabilera edo okupazio bereziak.

Salbuespena izango dira irudiak, programak, telefilmak eta antzekoak grabatzeko ekimenak.

Salbuespenak salbuespen, Gaztelugatxeko Biotopoagaz bateragarriak izan daitezkeen irabazizko ekimenak Udalak baino ezingo ditu garatu bere eskumeneko eremuan, zuzenean edo zeharka kudeatuta.

47. artikulua: Erroskilen salmenta tradiziozko egunetan

1. Salbuespen moduan, tradiziozko egunetarako, erroskilak saltzeko baimenak eman ahal izango dira Gaztelugatxerako sarbidera doan errepidean.

2. Baimena lortzeko eskariak, tradiziozko eguna baino hilabete lehenago eskatu beharko dira eta, eskariak baimendu daitezkeen postuen kopurua gainditzen ez badituzte, zuzenean emango dira, eskariei buruz eta jakien salmentari buruz Ordenantza honetan xedatuak betetzen badituzte.



3. Eskariak baimendu daitezkeen postuen kopurua gainditzen badituzte, baimenak, eskariei buruz eta jakien salmentari buruz Ordenantza honetan xedatuak betetzen dituztenen artean zozketatuko dira. Zozketa hori publikoa izango da.

SEIGARREN TITULUA: ZIGOR PROZEDURA.

48. artikulua: Prozedura

Ordenantza honen kontrako arau haustea zigortzeko prozedura izapidetzeko Herri Administrazioen Prozedura Administrazio Orokorra arautzen duen 39/2015 Legea, Sektore Publikoko Erregimena arautzen duen 40/2015 Legea eta Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak jarraituko dira.

49. artikulua: Erantzuleak

Ordenantza honen kontrako arau hausteen erantzuleak hauek izango dira:

- a) Baimenaren erabakian jasotakoak ez betetzeagatik edo ordenantza honetan jasotakoa ez betetzeagatik, baimenen titularrak.
- b) Baimena eduki gabe, jabari publikoaren edo erabilera publikoko ondasun pribatuaren okupazio edo erabilera egiten dutenak.
- c) Udalaren adostasun espresurik gabe baimena eskualdatzen den kasuetan, baimenaren erabakian jasotakoak ez betetzeagatik edo ordenantza honetan jasotakoa ez betetzeagatik, titularra eta eskualdatuz hartu duena, biak batera, izango dira erantzule.

50. artikulua: Arau hausteen klasifikazio eta tipifikazioa

- 1. Ordenantza honen kontrako arau haustea honela sailkatzen dira: arinak, larriak eta oso larriak.
- 2. Arau hauste arinak hauek dira:
 - a) Instalazio, elementu eta ingurunea garbitasun, higiene eta apaingarritasun baldintzetan mantentzeko betebeharrak ez betetzea.
 - b) Baimenean zehatutako edozein baldintza edota Ordenantza honetan xedatutako guztia ez betetzea, ez badago arau hauste larri edo oso larri moduan tipifikatuta.
- 3. Arau hauste larriak hauek dira:
 - a) Instalazio, elementu eta ingurunea garbitasun, higiene eta apaingarritasun baldintzetan mantentzeko betebeharrak ez betetzea, garbitasun, segurtasun eta osasungarritasuna era larrian kaltetzen badira.
 - b) Baimenik gabeko okupazio edo erabilerak, eskaria egin eta espresuki ezeztatu ez bada.
 - c) Baimendutako ordutegia ordu erdi baino gehiago eta ordubete baino gutxiago gainditzen bada.
 - d) Baimendu ez diren instrumentu edo musika gailuak erabiltzen badira, edo Ordenantza honetan eta Zaraten eta Dardaren aurkako babeserako udal Ordenantzaren xedatutakoak urratzen badira.



- e) Baimendutakoa baino okupazio edo erabilera handiagoa egiten bada, bai elementu edo instalazio gehiago jartzeagatik bai azalera gehiago erabiltzeagatik.
- f) Ondasunak aurreko egoerara itzultzeko betebeharra ez betetzea, berdin baimena izan zein ez izan.
- g) Ekimena eten edota elementu eta instalazioak kentzeko aginduak ez betetzea.
- h) Ondasunetan kalteak sortzea.

4. Arau hauste oso larriak hauek dira:

- a) Baimenik gabeko okupazio edo erabilerak, baimenik eskatu ez denean edo espresuki ukatu denean.
- b) Baimenean zehaztutako baldintza ez betetzeagatik bizilagun edo pertsonen kalteak eragiten bazaizkie.
- c) Udaltzain edo funtzionarioei ikuskapenak egitea ukatzea edo trabak ipintzea.

51. artikulua: Arau hausteen mailaketa

Zigorak mailakatu eta jartzeko 39/2015 eta 40/2015 legeetan ezarritako printzipio eta prozedurak aplikatuko dira.

52. artikulua: Isunen mugak

Legediak kontrakorik esaten ez duen bitartean, isunek muga hauek errespetatu beharko dituzte:

- a) Arau hauste arinak: 750 eurora arte.
- b) Arau hauste larriak: 1.500 eurora arte
- c) Arau hauste oso larriak: 3.000 eurora arte.

Legediak xedatutako gainditu ezker, legedian jasotako kopuru altuena hartuko da mugatzat.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau behin betikoz onartutako bere testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 lanegun igaro ondoren sartuko da indarrean.

